

Ahozko komunikaziorako prestakuntza: oinarriak, testuingurua eta baliabideak



02.Feb - 26.Apr 2026

Cod. 013-26

Mod.:

Streaming Face-to-face

Date

02.Feb - 26.Apr 2026

Location

Online and Bilbao Faculty of Education

Languages

Basque

Academic Validity

30 hours

Horario lectivo de la actividad para profesionales de la enseñanza

30 hours

Description

Ahozko komunikazioa funtsezko trebetasuna da hainbat esparru profesionaletan, bereziki, hezkuntzan, kulturen eta gizarte esparruetan. Ahozko komunikazioaren bidez, informazioa transmititzeaz gain, jarrerak, emozioak eta harreman sozialak eraikitzen dira. Horregatik, beharrezkoa da komunikazio-gaitasun sendoa garatzea, prestakuntza egituratu eta diziplinartekoaren bidez. Prestakuntza honek komunikazio-kompetentzia garatzea du helburu azpikonpetentzia espezifikoak integratuz: prosodikoa, pragmatikoa, soziolinguistikoa eta linguistikoa. Mikrokredentzial honen bidez, parte-hartzaileek ahozko komunikazioan eta ikus-entzunezko hizkeraren erabileran aditu izateko beharrezko gaitasunak eskuratuko dituzte. Horretarako, prestakuntzak eduki teorikoak, sozialak eta teknikoak uztartzen ditu.

Prestakuntzak 3 ECTS kreditu ditu, euskaraz izango da, ikasgai bat salbu, 10 aste irauten du eta hiru modulutan banatuta dago (Ahozko komunikazioaren oinarri linguistikoak; Gizarte testuinguruak eta ahozko interakzioa; Ahozko adierazpenerako baliabide eszenikoak, teknikoak eta didaktikoak). Eskolak modu presentzian Bilboko Hezkuntza Fakultatean izango dira eta, era berean, modalitate (a)sinkronoan ere izango dira eskuragarri EHUon plataforman.

Objectives

Ahozko komunikazioaren bidez hizkuntza era eraginkorrean ulertzea eta erabiltzea azalpenak ematean, ahots gora irakurtzean edota elkarrekintzan aritzeko, funtzio pragmatikoa, testuinguru soziolinguistikoa eta eduki linguistikoak kontuan izanik, baita gorpuzkera, keinuak nahiz ahozko melodia.

Beharrezkoak diren gizarte- eta komunikazio-kompetentziak garatzea, autonomia, autoerregulazioa, hezkidetzatza, aniztasuna, etika eta erantzukizun profesionala kontuan izanda.

Organised by



In collaboration with



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Direction



Aintzane Etxebarria Lejarreta

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Profesora agregada de la Facultad de Educación de Bilbao desde 2018, en el departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. He desempeñado mi labor docente en las diplomaturas de Magisterio, en los Grados de Educación Infantil y Primaria y en los Posgrados: Máster universitario en formación de profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de idiomas y Máster en Psicodidáctica: Psicología de la Educación y Didácticas Específicas. Tanto en el grado como en el máster he dirigido trabajos fin de grado, trabajos fin de máster y una tesis doctoral titulada Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian, actualmente dirigo la tesis doctoral titulada Lea Artibaiko 10-12 urteko gazteen konpetentzia prosodikoa ahots gorako irakurketan. Actualmente soy investigadora principal del grupo de investigación EUDIA.



Lorea Unamuno Goiriena

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea


Euskal Filologian lizentziatua da (2011), eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian (2015), eta Irakasleen Prestakuntzan (2015) masterduna. Halaber, IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan (2017) espezialista da. Gaur egun, EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean da irakasle, eta Komunikazio Gaitasunaren Garapena zein Euskararen Arauak eta Erabilerak ikasgaiak irakasten ditu. DOCENTIAZ programaren 13. deialdian aldeko txostena lortu zuen. EUDIA ikerketa-taldeko kide da, eta Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUk diruz lagundutako hainbat ikerketa-proiektutan hartu du parte. Ikerketa-lerro nagusiak prosodia, ahots gorako irakurketa eta hizkuntzaren aldakortasuna dira. Lau libururen editore eta 17 artikulu eta 14 liburu-kapituluren egilea. Era berean, ikerketa-taldeko proiektuetatik eratorritako emaitzak hainbat nazioarteko biltzarretan aurkeztu ditu.

Teachers



Iñigo Ibarra Lizundia (Ander Lipus)

Madrilgo William Layton Antzerki Laborategian egin zituen ikasketak. Antzerki antropologian aditua, hainbat ikastaro eta antzerki-eskolatan irakasle izan da. Madrilen lanean jardun ondoren, Bilbora itzuli eta, beste artista batzuekin batera, Mina Espazioa eta Antzerkiola Imaginarioa sortu zituen. 2007an ArteDrama Arte Eszenikoen Plataforma sortu zuen, eta 2012an proiektu pertsonalak bideratzeko Huts Teatro konpainia. Egun, maite duen antzerkia egiten jarraitzen du, zuzendari zein aktore lanetan..



Juan Abasolo Isasa

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasle agregatua da. Psikodidaktikan doktorea (2017), eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduko irakasgaietan jarduten du, bereziki hizkuntzen didaktika eta ahozko komunikazioari lotutakoetan. EUDIA ikerketa-taldeko kide da eta ikerketa-lerro nagusiak hizkuntza-bariazioa, prosodia gaitasuna eta idazketa-prozesuen azterketa dira, ahozko zein idatzizko komunikazioaren ikuspegitik. Arlo horietan hainbat artikulu eta liburu-kapitulu argitaratu ditu, eta nazioarteko kongresuetan hartu du parte, ahozko komunikazioaren irakaskuntza eta ikerketa uztartuz. Horrez gain, IDAT aplikazioa sortu eta garatu du, idazketa-prozesua aztertzeko baliabidea. Irakasle gisa, esperientzia zabala du ahozko trebetasunak lantzeko estrategiak, testu-motak eta komunikazio eszenatokiak ikertzen eta irakasten, bai unibertsitatean bai helduen euskalduntzean.



Aitor Carrera Baiget

Universitat de Lleida

Doctor en Filologia Catalana i professor a la Universitat de Lleida, on imparteix dialectologia catalana i lingüística occitana i dirigeix la Càtedra d'Estudis Occitans. És autor de més de cent cinquanta

publicacions sobre lingüística, i específicament sobre dialectologia, gramàtica, sociolingüística o onomàstica, entre les quals es compten la primera gramàtica moderna de l'aranès (Gramatica aranesa, 2007), la primera exposició sistemàtica i comparada de les formes i estructures de l'occità referencial i del gascò de la Vall d'Aran, que inclou el primer diccionari català-aranès (L'occità. Gramàtica i diccionari bàsics, 2010), o el Petit atlas lingüístic de la Vall d'Aran (2023). Entre altres organismes, és membre del Conselh Lingüistic del Congrés Permanent de la Lengua Occitana o del consell d'administració de l'Associacion Internacionala d'Estudis Occitans, de la qual va coordinar l'onzè congrés internacional, celebrat a Lleida l'any 2014. Igualment, va ser el director, designat per la Generalitat de Catalunya, de la comissió encarregada de fixar les formes del primer traductor automàtic occità-català, integrada per experts designats per administracions territorials dels estats francès i italià.



Naia Egusquiza Sanchez

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EHUko irakasle atxikia da Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean. Hizkuntzaren Didaktika eta Hizkuntza Estandarra eta Aldaerak Eskolan ikasgaiak irakasten ditu. EUDIA ikerketa-taldeko kide da eta bertan hainbat liburu, artikulu, kongresu eta ikerketa-proiektutan hartu du parte. Ikerketa-lerro nagusiak prosodia, ahots gorako irakurketa eta hizkuntzaren aldakortasuna dira. DOCENTIAZ programaren 13. deialdian aldeko txostena lortu zuen.



Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Filologian lizentziatua (2010) da, eta Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea (2015) Sari Bereziarekin. EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailean da irakasle, eta Bilboko Ingeniaritza Eskolan irakasten ditu Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz eta Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz ikasgaiak. Aldeko txostena lortu zuen DOCENTIAZ programaren 13. deialdian. EUDIA ikerketa-taldeko kide da 2013tik eta Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUk diruz lagundutako hainbat ikerketa-proiektutan hartu du parte. Ikerketa-lerroak hizkuntza-aldakortasunean, gaitasun prosodikoaren garapenean eta ahots gorako irakurketan oinarritzen dira.



Aintzane Etxebarria Lejarreta

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Profesora agregada de la Facultad de Educación de Bilbao desde 2018, en el departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. He desempeñado mi labor docente en las diplomaturas de Magisterio, en los Grados de Educación Infantil y Primaria y en los Posgrados: Máster universitario en formación de profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de idiomas y Máster en Psicodidáctica: Psicología de la Educación y Didácticas Específicas. Tanto en el grado como en el máster he dirigido trabajos fin de grado, trabajos fin de máster y una tesis doctoral titulada Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian, actualmente dirigo la tesis doctoral titulada Lea Artibaiko 10-12 urteko gazteen konpetentzia prosodikoa ahots gorako irakurketan. Actualmente soy investigadora principal del grupo de investigación EUDIA.



Aitor Iglesias Chaves

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

licenciado en Filología Vasca, Doctor en Lingüística y Estudios Vascos por la Universidad del País Vasco, hoy en día es profesor agregado en el Departamento de Didáctica de la Lengua y Literatura de la UPV/EHU. Es miembro del grupo de investigación EUDIA de dicha universidad gracias al cual ha participado en diversos proyectos de investigación subvencionados por el MICINN, el Gobierno Vasco y la UPV/EHU. Como líneas principales de investigación tiene el desarrollo de la competencia prosódica, la lectura, el estudio de la variación lingüística y su aplicación en la enseñanza



Oihana Lujanbio Begiristain

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea


Euskal Filologian lizentziaduna (2004) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian doktorea (2016). EHUKo Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailean irakasle atxikia da 2021az geroztik, eta Arabako

Campusean ari da irakasle-lanetan. Ikerketa-ibilbidea soziolinguistika eta dialektologiara bideratu du, batez ere, soziolinguistikan aritu da Soziolinguistika Klusterrean (2006-2010) eta Euskaltzaindian Euskararen Historia Soziala egitasmoan (2016-2020). Soziolinguistika Eskuliburuaren koordinatzailea izan da eta baita Eralan eta Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak proiektuena ere, besteak beste. Proiektu horiei lotutako lanak argitaratzeaz gain, azentuaren eta hizkuntza-aldakortasunaren gainean idatzi du.



Nerea Mendizabal Etxeberria

Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzailea - Center for Non-Violent Communication-ak ziurtatua. Psikopedagogian lizentziatua eta Gizarte Hezkuntzan diplomatua. Lan profesionalaren zatirik handiena familiei eta hezitzaileei laguntzen ematen du gurasoen eskolen, hitzaldien, ikastaroen eta prestakuntzaren bidez. Azken urteotan, aberastu egin du ikuspegi profesionala eta musika txertatu du osagarri estrategiko gisa, garatu beharreko edukien transmisio eraginkorra sustatzeko.



Luis Pastor Santamaria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Filologian lizentziatua da, Hizkuntzalaritzan doktorea eta gaur egun EHUKo Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasle laguntzaile doktorea. Harvard-eko Unibertsitateko Ikertzaile Bisitaria izan da 2013-2014 ikasturteko lehen seihilekoan. Gogo Elebiduna ikerketa-talde egonkortuko kide izan da, eta nazioko eta nazioarteko ikerketa-proiektuetan hartu du parte. Ikerketa-lerro nagusia oinarritzko hitz-ordena desberdina duten hizkuntzen ezaugarri gramatikalen prozesamendua da, bereziki gaztelania eta euskararen.



Maite Santiago Garabieta

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

HUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean irakasle laguntzaile doktorea da. Ikertzaile-ibilbidean zenbait ikerketa-proiektu nazional eta nazioartekoetan hartu du parte. Horietan hezkuntza-arloko hainbat eragilerekin modu kolaboratiboan jardun du, besteak beste, ikasleekin, irakasleekin, familiekin eta hezkuntza-teknikariekin, hezkuntza-praktika inklusiboen erabilera sustatzeko. Azken urteetan arrakasta akademiko eta soziala indartzen dituzten ikaskuntza-ingurune interaktiboen eragina aztertu du, testuinguru eleaniztunetan bigarren hizkuntzaren (H2) jabeakuntza prozesua hobetzeko helburuarekin. Ikerketa hauen emaitzak inpaktudun aldizkari zientifikoetan argitaratu eta nazioarteko biltzarretan aurkeztu ditu.



Lorea Unamuno Goiriena

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Filologian lizentziatua da (2011), eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologian (2015), eta Irakasleen Prestakuntzan (2015) masterduna. Halaber, IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan (2017) espezialista da. Gaur egun, EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean da irakasle, eta Komunikazio Gaitasunaren Garapena zein Euskararen Arauak eta Erabilerak ikasgaiak irakasten ditu. DOCENTIAZ programaren 13. deialdian aldeko txostena lortu zuen. EUDIA ikerketa-taldeko kide da, eta Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUK diruz lagundutako hainbat ikerketa-proiektutan hartu du parte. Ikerketa-lerro nagusiak prosodia, ahots gorako irakurketa eta hizkuntzaren aldakortasuna dira. Lau libururen editore eta 17 artikulua eta 14 liburu-kapituluren egilea. Era berean, ikerketa-taldeko proiektuetatik eratorritako emaitzak hainbat nazioarteko biltzarretan aurkeztu ditu.

Registration fees

If the microcredential has already started there will be no refund of the enrolment fee.

REGISTRATION	UNTIL 29-01-2026
General	122,75 EUR

Place

Online and Bilbao Faculty of Education

Barrio Sarriena, s/n. 48940 Leioa

Bizkaia